ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko otsailaren 17a, asteazkena • 19 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko otsailaren 9ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

— **Foru dekretuak:**

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2021 Foru Dekretua, otsailaren 9koa. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua, onesten duena Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, gaur egun Gizarte Politiken Saila.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2021 Foru Dekretua, otsailaren 9koa. Onespena ematea mahastien aseguruak kontratatzeko laguntzetarako oinarri arautzaileen aldaketari eta lerro horren 2021erako deialdiari.

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Berritzea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan duen ordezkaritza.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea luzatzea urtebetez Arabako Lurralde Historikoko Ondasun Higiezinen Katastroa etengabe gaurkotzeko zerbitzuaren kontratua, TRACASA-TCA ALAVA 2018 ABEEri esleitua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 47/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea 2021eko ekitaldiko konpromiso ekonomikoak, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartutako zorpetzearen ondorioz sortuak.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea Aguraingo Udalari emandako dirulaguntza baten egiaztagiriak epez kanpo aurkeztu izana.

Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Baimena ematea Galarretako Administrazio Batzarrari epe laburrerako kreditu eragiketa bat hitzartzeko, LED argiztapeneko eta saneamendu sarea banatzeko obrak aldi batez finantzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Baimena ematea Okinako Administrazio Batzarrari epe laburrerako kreditu eragiketa bat hitzartzeko finantza erakunde batekin, Okinako gizarte etxeko zaharberritzearen bigarren faseko obrak aldi batez finantzatzeko.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 51/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea “Arabako Haranetako VII. Zona (Osma - Karkamu Harana) hobetu eta modernizatzeko proiektua, goratzea banaketa sarea” izeneko proiektuaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrendaren jendaurrean jartzeko izapidearen alegazioen erantzuna, bai eta eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda eta okupatu beharra ere, eta premiazkotzat jotzea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen Erregistroan jasota dauden landa bideetako mantentze lanak egiteko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea, 450.000,00 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta 3 hilabeteko gauzatze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 53/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen 2021eko deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 54/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko laguntzen 2021eko deialdia. 4.1. neurria.

Foru Gobernu Kontseiluaren 55/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea nekazari gazteek enpresak sortzeko diren laguntzen 2021eko deialdia. 6.1. neurria.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea JUNDIZ II ABEEri 2021eko ekitaldirako dagokion zenbatekoa kontsignatzea, ontziak sailkatzeko Jundizko lantegiaren ustiaketagatik.

Foru Gobernu Kontseiluaren 57/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. 628/2020 Erabakia, Arabako landa-gune garbien sarea ustiatu eta mantentzeko zerbitzua Contenedores Escor Vitoria, S. L. enpresari esleitzea onartzen zuena, ondoriorik gabe uztea, kontratatzeko debekuaren eraginpean dagoelako, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153.4 artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzeko prozedura hastea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 58/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea 2021eko martxoaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra luza dadila Martiodako Faunaren Suspertegiaren Kudeaketa Integralerako kontratua.



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2021.02.17 06:47:35 Z